



Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea  
Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia

Agencia de Evaluación de la Calidad y  
Acreditación del Sistema Universitario Vasco

# **EBALUAZIO-MEMORIA: EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN MASTER-TITULUAK**

**2009-2010**

## AURKIBIDEA

	Or.
1. TESTUINGURUA .....	1
2. EBALUAZIO-PROZESUA .....	1
2.1. UNIBERTSITATEEK UNIQUALI MEMORIAK AURKEZTEA.....	5
2.2. EMAITZAK.....	6
3. ETORKIZUNEKO AUKERAK.....	6
I. ERANSKINA: ARAUTEGIA .....	7

## 1. TESTUINGURUA


Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) Europaren eraketaren funtsezko proiektua dugu, eta Espainiako unibertsitateek esparru horren sorreran parte hartzen dutenez gero, master-titulu berriak egitean proiektu horren printzipioetara egokitu behar dira.

Zeregin horretan honakoek hartzen dute parte: Espainiako gobernuak, legedia bultzatzeko eta tituluak Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistro berrian erregistratzeko lanetan; Eusko Jaurlaritzak, tituluak baimentzeko arduradun; Unibertsitateen Kontseiluak eta ANECAk, ikasketen egiaztapen akademikoaren arduradun, eta UNIQUALEk, Eusko Jaurlaritzak ematen duen baimenaren aurreko txostena egiteko arduradun. Hori guztia, 4/2007 Legeko 35. artikuluan, 3/2004 Legeko 48 eta 80.3.c) artikuluetan, 1393/2007 Errege Dekretuko 24., 25. eta 26. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren 11/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legeak 48. artikuluan xedatzen duenez, derrigorrezkoa da Uniqualen alde aurretiko txostena izatea goi-mailako irakaskuntzako titulu ofizialak lortzeko behar diren ikasketa-plan berriak onartze aldera. Ondoren, 11/2009 Dekretuak, Gradu-, Master- eta Doktoretza-tituluak lortzeko unibertsitateko irakaskuntza ofizialak ezartzeari eta ezabatzeari buruzkoak, txosten hori prestatzeko prozedura eta irizpideak ezarri ditu.

## 2. EBALUAZIO-PROZESUA

Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateen ikasketa-planei buruz UNIQUALEk egin beharreko aurretiko txostena lotzeko prozedura 11/2009 Dekretuan ezarritakoaren arabera da, eta etapa hauek bete behar ditu:



Egin beharreko ebaluazio-prozesuaren berezitasunak kontuan hartuta, ebaluatzaileak hautatu ziren, kasuan kasuko tituluaren arloko profesional entzutetsuen artean. Ebaluatzaileok batez ere tituluaren justifikazioarekin lotutako kontuak baloratu zituzten, baita tituluaren gaitasunak, irakaspenen edukia, irakasleen egokitasuna eta kalitatea bermatzeko barne-sistema ere. Zientzia-arlo handi hauetakoak ziren ebaluatzaileok:

- 1) Zientziak.
- 2) Osasun Zientziak.
- 3) Arkitektura eta Ingeniaritza.
- 4) Gizarte- eta Lege-zientziak.
- 5) Arteak eta Giza Zientziak.

Jarraian, 2010-2011 ikasturterako master-proposamenak ebaluatu dituztenen zerrenda zehazten da:

<b>JAKINTZA-ARLOA: ZIENTZIAK</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Rodolfo Miranda	Unibertsitateko katedraduna	Madrileko Unibertsitate Autonomoa	Materia Kondentsatuaren Fisika
Germán de Valcárcel	Irakasle titularra	Valentziako Unibertsitatea	Optika
Amparo Salvador	Irakasle titularra	Gaztela-Mantxako Unibertsitatea	Elikagaien Teknologia
Juan Antonio Rodríguez Renuncio	Unibertsitateko katedraduna	Madrileko Unibertsitate Konplutensea	Kimika eta Fisika

<b>JAKINTZA-ARLOA: OSASUN-ZIENTZIAK</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Carlos Solsona Sancho	Unibertsitateko katedraduna	Bartzelonako Unibertsitatea	Biologia Zelularra
J.R. Regueiro	Unibertsitateko katedraduna	Madrileko Unibertsitate Konplutensea	Immunologia
Ángel Domínguez	Unibertsitateko katedraduna	Salamancako Unibertsitatea	Mikrobiologia
Carlos Enrich Bastus	Unibertsitateko katedraduna	Bartzelonako Unibertsitatea	Biologia Zelularra
Elena Barbería Leache	Unibertsitateko katedraduna	Madrileko Unibertsitate Konplutensea	Estomatologia


<b>JAKINTZA-ARLOA: ARKITEKTURA ETA INGENIARITZA</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Javier Muniozguren	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Adierazpen Grafikoa Ingeniaritzan
Félix Sanz	Unibertsitateko katedraduna	Errioxako Unibertsitatea	Adierazpen Grafikoa Ingeniaritzan

<b>JAKINTZA-ARLOA: GIZARTE- ETA LEGE-ZIENTZIAK</b>			
<b>Ebaluatzailea</b>	<b>Kategoria</b>	<b>Unibertsitatea</b>	<b>Jakintza-arloa</b>
Luisa Rojo	Unibertsitateko katedraduna	Madrileko Unibertsitate Autonomoa	Hizkuntzalaritza Orokorra
Pablo Santolaya	Unibertsitateko katedraduna	Alcala de Henaresko Unibertsitatea	Konstituzio Zuzenbidea
José Ignacio Lacasta	Unibertsitateko katedraduna	Zaragozako Unibertsitatea	Zuzenbidearen Filosofia
José Luis San Fabián	Irakasle titularra	Oviedoko Unibertsitatea	Didaktika eta Eskola-antolakuntza
Javier Sampedro Molinuevo	Irakasle titularra	Madrileko Unibertsitate Politeknikoa	Gorputz eta Kirol Hezkuntza
Joaquín Molins	Unibertsitateko katedraduna	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa	Zientzia Politikoa
Lourdes Munduate	Unibertsitateko katedraduna	Sevillako Unibertsitatea	Gizarte Psikologia
Miguel Angel Zabalza	Unibertsitateko katedraduna	Santiagoko Unibertsitatea	Didaktika eta Eskola-antolakuntza
Miguel Jerez Mir	Unibertsitateko katedraduna	Granadako Unibertsitatea	Politika- eta Administrazio-zientziak
Joaquín Gairin	Unibertsitateko katedraduna	Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa	Didaktika eta Eskola-antolakuntza

JAKINTZA-ARLOA: ARTEAK ETA GIZA ZIENTZIAK			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Pilar Escanero	Irakasle titularra	Miguel Hernández Unibertsitatea	Artearen Historia
Teun van Dijk	Irakasle bisitaria	UPF	Diskurtsoaren Azterketak
María Fernanda Morón	Irakasle titularra	Sevillako Unibertsitatea	Artearen Historia
Juan Luis Luján	Unibertsitateko katedraduna	Balear Uharteetako Unibertsitatea	Logika eta Zientziaren Filosofia


### 2.1. UNIBERTSITATEEK UNIQUALI MEMORIAK AURKEZTEA.

Guztira, 25 master-proposamen jaso ziren 2010-2011 ikasturterako: 22 EHU-k eginak, eta 3 Mondragon Unibertsitateak. Ondorengo irudian jakintza-arloka banatu dira proposamenok.



## 2.2. EMAITZAK.

Aurkeztutako 25 proposamenetatik, 1 atzera bota zuen EHUK, eta gainerako 24 proposamenetatik % 87,5ek aldeko txostena lortu zuten. Hiru proposamendi aldeko txostena eman zitzaien, hainbat hobekuntza egiteko baldintzapean.



## 3. ETORKIZUNeko AUKERAK

861/2010 Errege Dekretuaren 27. artikulua eta 11/2009 Dekretuaren 17. artikulua 4. idatz-zatiaren arabera, UNIQUALEk Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitate guztien gradu-, master- eta doktorego-ikasketa ofizial erregistratuen segimendua egingo du, akreditazioa berritzeko ebaluaziopean jarri behar diren unera arte.

Hona UNIQUALEk unibertsitatearen titulu ofizialen gainean egingo duen segimenduaren helburuak:

- Ikaskuntzak ezarritako tituluaren ikasketa-planaren arabera gauzaten direla egiaztatzea, Unibertsitateen, Zentroyen eta Tituluen Erregistroan jasota dagoen bezala, eta Unibertsitate Kontseiluak onartutako eta baimendutako aldaketekin batera.
- Unibertsitate-sistemaren eragile interesdunek informazio egoki eta garrantzitsua eskura izango dutela ziurtatzea.
- Irakaskuntzak benetan garatzeko egon daitezkeen hutsuneak antzematea eta horiek zuzentzeko egindako ekintzak aztertzea.
- Ikasketa-planak ezartzean, hobetzeko gomendioak eta/edo iradokizunak egitea.
- Antzematea zein diren praktika onak unibertsitate-sistemaren barruan zabaltzeko.



**I. ERANSKINA: ARAUTEGIA**

- 1393/2007 ERREGE DEKRETUA, urriaren 29koa, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duena.
- 11/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Gradu-, Master- eta Doktorego- tituluak lortzeko gauzatu behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa.
- 861/2010 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 2koa, urriaren 29ko 139372007 Errege Dekretua aldatzen duena. Haren bidez, unibertsitate-mailako irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen da.
- 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 LOUa aldatzen duena.
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.